

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

2024. urteko emakiden eta aprobetxamendu berezien errolda fiskalak jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2 artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita 2024. urteko emakiden eta aprobetxamendu berezien errolda fiskalak, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea —, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo diren erroldetan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Ordaintzeko epea 2024ko maiatzaren 10etik uztailaren 10era artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko otsailaren 29an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO